



Arartekoaren ebazpena, 2013ko urtarrilaren 17koa. Horren bidez, Legorretako Udalari gomendatzen zaio (...) tabernak eragindako kalteak saihesteko neurri egokiak har ditzan eta jarduera horri, albait lasterren, ingurumeneko legeria bete dezala eska diezaion.

Aurrekariak

1. Legorretako hainbat herritarrek euren etxebizitzaren etxabea kokatuta dagoen ostalaritza establezimenduan sortutako etengabeko irregulartasunen aurrean udalak esku hartu ez izana salatu dute erakunde honen aurrean.

Zehazki, etxebizitzan pairatzen duten gehiegizko soinu-maila eta establezimendu horretatik datozen talka-kolpeak jasanezinak direla adierazi dute. Euren ustez, lokalean burutzen den jarduera motarako isolamendu nahikorik ez izateagatik geratzen da hori. Halaber, itxiera ordutegia behin eta berriro urratzeagatik eta establezimenduaren sukaldea behar ez bezala erabiltzeagatik pairatzen duten ezinegona adierazi dute.

Era berean, 2008az geroztik aurkeztutako erreklamazioen ondorioz, lokalean irregulartasun ugari jaso direla aipatu dute eta tokiko erakundeak ez du behin betiko erabakirik hartu jarduera horretan antzemandako hutsuneak zuzentzeko.

2. Kexagileek helarazitako gogoetak ikusita, Ararteko erakundeak kexa-espeditzea (erreferentzia 656/2012/28) izapidetzea erabaki zuen Legorretako Udalari informazioa eskatze aldera lokalaren egoera administratiboa eta hirigintzakoa ezagutzeko. Halaber, erakundeak uneko hutsuneak zuzentzeko aurreikusita zituen jarduerari buruzko informazioa eskatu genuen.
3. 2012ko ekainaren 22ko eskaera horri erantzunez, tokiko erakundeak establezimenduaren administrazio espeditzea bidali zion erakunde honi, Bertan egiaztatu ahal izan dugunez, jarduera 1994az geroztik dago abian eta instalazioko zein irekitzeko aginduzko lizentziak ditu, azken hori 1996ko apirilaren 15ean eman bazen ere.

Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1994ko irailaren 7an emandako **jardueraren kalifikazio txostenean**, besteak beste, honako neurri zuzentzaileak ezarri ziren:

- *El anclaje de la maquinaria se realizará con elementos antivibratorios,*
- *Se evitara la transmisión de vibraciones a la estructura del edificio, locales y viviendas próximas.*
- *Insonorización de la totalidad del local a fin de que no se sobrepasen los 40 y 30 dB(A) en nivel continuo equivalente en Leq.60-s ni los 45 y 35 dB(A) medidos como Lmax. en los dormitorios, cocinas y salas de estar de las viviendas más próximas o en los locales contiguos, a partir de las 8 y 22 horas respectivamente sin perjuicio de la normativa municipal específica existente.*





- **Se prohíbe el uso de aparatos musicales excepto radio, televisión e hilo musical los cuales estarán anclados de modo que no sobrepasen los 75 dB(A) en cualquier punto del local.**
 - **La ventilación se efectuará siempre sin producir molestias al vecindario. Se prohíbe el uso de cocina, freidora, plancha, asador, etc.**
4. Aurkeztutako lehen salaketen ondorioz eta lokalean hutsune ugari antzeman ondoren, **2009ko ekainaren 5eko** udal txostenaren bidez, establezimenduko titularrari jardueratik sortutako irregulartasunak zuzendu zitzaizkion eta kalifikazio txostenean ezarritako baldintzak bete zitzaizkion.
5. **2009ko uztailaren 8an** ikuskapen bisita egin zen eta jarduerak txostenean eskatutako baldintzak betetzen ez dituela baieztatu zen. Adierazi zenaren arabera:

Existe un aparato de música susceptible de producir un nivel sonoro que pueda ocasionar problemas de ruido en el vecindario.

En la Licencia Decreto de Alcaldía 81/94, en su apartado 5º se hace la observación de que se prohíbe el uso de aparatos musicales excepto radio, televisión e hilo musical, los cuales estarán anclados de modo que no sobrepasen los 75 dB(A) en cualquier punto del local.

En principio se debe eliminar cualquier aparato que no cumpla las condiciones citadas, no obstante considero que para poder determinar la cantidad de decibelios que se genera en el local en función de su actividad, sería necesario realizar una medición por una empresa especializada.

También, he podido comprobar que existen unas ventanas que dan a la fachada posterior, para poder ventilar de forma natural el local en momentos de máxima ocupación, se procede a la apertura de estas ventanas con lo que se produce un aumento del nivel de ruido que se proyecta al exterior del edificio.

En función de los datos obtenidos en la medición de ruido, considero que sería necesario realizar una instalación forzada de ventilación en el interior del local, colocando conductos de impulsión y extracción de aire de forma que se puedan mantener las condiciones acústicas proyectadas en el interior del local.

6. **2009ko uztailaren 17ko Alkatetza Dekretu berri baten bitartez lortutako ondorioen arabera**, berritua ere jarduerara aldeztu aurretik ezarritako baldintzetara egokitzea eskatu zen edo, hala egin ezean, zigortzeko espedientea hasiko zen.
7. Urte hauetan guztietan zehar aurkeztutako salaketak gorabehera, azkenik, **hiru urte baino gehiago pasa ondoren**, hau da, **2012ko otsailaren 25ean**, burutzeke zegoen neurketa egin zen.

Proba horretan lortutako emaitzak 40,2 dB(A) eta 58,5 dB(A) gehienezko maila baliokidea izan ziren, beraz, **egunez ezarritako legezko igorpen mugak nabarmenki gaintzen direla antzematen da**. Izan ere, aurreko kalifikazio





txostenean xedatutakoaren arabera, baimendutako gehienezko mailak 40Db(A) eta 45 Db(A) dira Laeq eta fmax-erako.

8. Lortutako emaitzei jarraiki, udal teknikariak sinatutako **2012ko martxoaren 21eko txostenaren bidez, jardueratik datozen zarata-mailek uneko araudian legez ezarritako maximoak gainditzen dituztela** antzematen da. **(lizentziaren 4. atala).**

9. Udaleko teknikariak eta neurketa bideratu zuen ingeniariak ikuskapen bisita berri bat egin zuten hartu beharreko neurri zuzentzaileak zehazteko. Egindako ikuskapenaren ondoren, udaleko txosten bidez zera adierazi zen: *Según el Proyecto de Actividad de Bar realizado en el año 1994, se ejecutó una reforma del local en la que se procedió al aislamiento acústico del techo del local.*

*Después del resultado obtenido en las mediciones llego a la conclusión de que **el aislamiento ejecutado en el local es insuficiente para poder cumplimentar la actual Normativa de Ruidos.***

*En opinión del Ingeniero, el Ruido aéreo detectado en sus mediciones proviene fundamentalmente de **los niveles sonoros del público existente en el interior del local, no necesariamente producido por el aparato musical.***

Como es lógico suponer en horario nocturno se producirán como mínimo niveles de ruido similares al obtenido en horario diurno, con el inconveniente de que por la noche la Normativa es más estricta, no permitiendo niveles superiores a los 30 dB(A).

Las medidas correctoras necesarias deben de contemplar una actuación total de aislamiento del local en sus tres parámetros:

- a) Falso techo actualmente insuficientemente aislado, que delimita con el forjado que separa el citado local con la Planta 1º de vivienda.*
- b) Todo el contorno perimetral de las paredes del local con material aislante autoportante.*
- c) Suelo flotante.*

Todos estos materiales deberán ser ejecutados adoptando medidas especiales de contacto con la actual estructura de hormigón armado de edificio, que eviten cualquier transmisión de ruidos a través de la misma.

*Considero que la reforma del local es de suficiente entidad como para tener que ser contemplada dentro **de un nuevo Proyecto** que permita cumplimiento y legalice el local adecuando la actividad a las actuales Normativas en las que se incluye la del Ruido.*

10. Aurreko txostenean xedatutakoaren arabera eta kontrol berrien bidez **lokalean emandako lizentzian berariaz debekatutako musika ekipo bat erabiltzen jarraitzen zutela eta erregularizatu gabeko sukaldea zegoela** bermatu ondoren, **apirilaren 19ko 142/2012 Alkatetza Dekretu bidez**, berriro ere aurretik aipatutako baldintzak gehienez ere 20 eguneko epean bete ditzan eskatzen da.





11. **2012ko maiatzaren 30ean** ikuskapen bisita berri bat eginda, udaleko zerbitzu teknikoek jarduerak baldintza berdinetan jarraitzen zuela egiaztatu zuten.
12. **Maiatzaren 31ko 204/2012 Alkatetza Dekretu bidez**, aurreko neurketan lortutako emaitzak eta egindako ikuskapenak ikusita, lokalaren isolamendu-maila eraginkortasunik gabekoa eta urria dela ondorioztatzen da eta, funtzionamendua indarreko legerian ezarritako parametroen arabera berrabiarazteko, lokalean hobekuntzak egin behar dira, euren izaera eta zailtasun teknikoarengatik, proiektu berri bat idaztea eta erreforma garrantzitsua burutzea eskatzen dutenak.

Nolanahi ere, kasu honetan biltzen diren egoerak kontuan hartuta eta ustezko arau-hausleak ingurumeneko legezkotasuna berrezartzeko eta berreskuratzeko administrazio-aginduak behin eta berriro urratu ditunez, lokalean aurkako zigortzeko espedientea hasi zen eta lokalaren kautelazko itxiera eskatu zen antzemandako hutsuneak zuzendu arte. Hala ere, interesdunari entzunaldia eskaini zitzaion, 5 eguneko epean, egokitzen jotzen zuena alegatzeko.

13. Ondoren, eta udal horretako idazkari kontu-hartzaileak emandako egiaztagiriaran arabera, jardueraren arduradunak eskaintako epean inolako alegaziorik aurkeztu ez zuenez, **ekainaren 11ko 215/2015 Alkatetza Dekretu bidez**, ura eta argiaren hornidura moztea agindu zen.
14. Hala ere, badirudi jardueraren titularrak alegazioak aurkeztu zituela, **2012ko ekainaren 8an**, orokorrean, honako hau argudiatuz:
 - a) Lehenik eta behin, aurretik aipatu dugun otsailaren 28an egindako soinu neurketan lortutako emaitzarekin ados ez dagoela azaldu zuen, izan ere, bere ustez, ez zuen zehazten zaratak nondik zetozen. Izan ere, adierazitakoaren arabera: "*los niveles alcanzados podrían producirse por el ruido producido por la acumulación de ruido en el exterior al situarse el local enfrente de una sidrería. Además, puntualiza que dicha medición se realizó durante la celebración de carnavales, época de fiestas en la localidad. Por tanto, el aumento de ruido resulta significativo en todo el municipio, y, con ello, a su entender, los datos obtenidos en dicha medición no considera que fueran representativos, ni reales.*"
 - b) 1994an dagoeneko tabernan erreformak egin zirela eta harez geroztik ez dela arazorik antzeman.
 - c) Lokalak sukaldea badu ere, ez dutela erabiltzen, biltegi gisa dute-eta.

Horren inguruan aipatu beharra dago lokalaren jabeak ez duela inolako probarik aurkeztu aurretik aipatutakoa bermatzeko, bere idazkia besterik ez.

Auzokideek, berriz, denbora honetan guztian zehar, udalean erreklamazioak aurkezten jarraitu dute eta, 2012ko apirilaren 20an eta 21ean, eskura ditugun





agiriaren arabera, Ertzaintzak lokala hustu behar izan zuen jarduerak eragindako zarata kalte larriengatik eta itxiera ordutegia urratu izanagatik.

15. **Ekainaren 14ko 215/2012 Alkatetza Ebazpen berri baten bidez**, jardueraren titularrak aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta, **ekainaren 11ko 214/2012 aurreko dekretua indargabetzen zela** adierazi zen eta, berriro ere, lokalari ur eta argi hornidura eman zitzaion.
16. Une hartatik aurrera, inguruko auzokideek eskaini izan dizkigute eskura ditugun agiriak eta horien bidez egiaztatu dugu, **2012ko uztailaren 25ean**, Legorretako Udalak jakinarazpen bat bidali ziela eragindako auzokideei laster etxebizitzan neurketa berri bat egingo zela helarazteko eta bertan sartzeko baimena eskatu zuten.

Eragindako auzokideek, bestalde, **2012ko uztailaren 26an** idazki bat aurkeztu zuten udalaren aurrean egin nahi zuten probaren inguruko hainbat datu ezagutzeko eta proba hori egiteko zituzten arrazoiari berri izateko. Izan ere, adierazi dutenaren arabera, alde aurretik egindako proban dagoeneko behar bezala bermatu zen baimenduta dauden mailak gainditu zirela.

Era berean, 2012ko abuztuaren 1ean, herritarrak berriro ere udalera joan ziren neurketa berri hori egiteko data atzeratzeko edo, osterantzean, alde aurretik adosteko beharra azaltzeko, izan ere, lan arrazoiengatik, egunean zehar ez dira etxean egoten.

17. Hala eta guztiz ere, egun horretan bertan eta, ageriko arrazoirik gabe, **abuztuaren 1eko 283/2012 zk.ko Dekretu bidez jarduera etetearen inguruan alde aurretik ezarritako kautelazko neurria indargabetu zen** eta kautelazko beste neurri batzuk adostu ziren, ebazpenean bertan azaltzen denez, horren murriztaileak ez direnak.

Zehazki, **berriro ere jardueraren irekiera baimendu zen, betiere, establezimendutik eskainitako lizentzian baimenduta ez dauden edozein motatako instalazioak edo gailuak kentzen bazituzten**. Era berean, aipatzen zenez, albat lasterren, lokalean aireko zarataren isolamendu akustikoaren eta goiko etxebizitzarekiko eraginaren proba egingo zen, lortutako emaitzen arabera, hartu beharreko ustezko neurriak zehazteko.

Kautelazko neurri hori adostutako prozedurari amaiera eman arte mantenduko zela jakinarazten zen edo, osterantzean, udalaren baimena eta kontrola izan ondoren, goiko etxebizitzan soinu igorpenaren mailak errespetatzen direla bermatzen duen soinua mugatzeko sistema ezarri arte.

Hala eta guztiz ere, eskura ditugun datuetatik eta, eragindako auzokideek adierazitakoaren arabera, ez dirudi aginduzko baimenik ez duten gailuak kendu dituztenik, izan ere, dirudienez, mugatze-sistema hori lokalaren soinu iturri guztietan ezarri besterik ez dute egiten.





Gainera, ebazpenak berak azaltzen duen moduan, espediente nagusiaren (zigortzailea) gainean egingo den balorazioaren kaltetan izan gabe, neurri berri horiek ezartzeko eta lokala berriro ere irekitzea baimentzeko, oinarri gisa, alde batetik, honako gertakari hauek hartu dira kontuan:

- a) Adierazi duenaren arabera, **maiatzaren 31ko 204/2012** aurreko alkatetza dekretuan lokalaren kautelazko itxiera eskatzeko kontuan hartu ziren txosten bakarrak 2012ko otsailaren 24ean egindako neurketa (7. aurrekaria) eta 2012ko martxoaren 21eko udalaren txostena (8. aurrekaria) izan dira. Baina, adierazitakoaren arabera: *“el informe adolece de información que permita una ponderación real de las circunstancias que concurrieron en el acto de la medición.*
- b) *La prueba fue efectuada un día señalado, de especiales características, como es el sábado de carnaval.*
- c) *El resultado de la prueba indica que la transmisión sonora superó el reseñado horario de entre las 16.30 y 18.30 en 0,20 dB.”*

Nahiz eta burututako neurketa bakarrean ez diren emaitza horiek ondoriotzatzen.

Bestalde, aurreko gertakariez gain, honako hau ere hartu da kontuan:

- a) Lehenik eta behin, kautelazko neurrien behin-behineko izaera eta, beraz, ezin direla behin betikotzat hartu. Hori dela-eta, udalak uste izan zuen lokala ezin zela modu iraunkorrean itxita egon, beraz, berriro irekitzea onartu zuen, horren murriztaileak ez diren beste neurri mota batzuk eskatuz.

Hala eta guztiz ere, ez zen ezer aipatu lokalean antzemandako hutsuneak zuzentzeko beharrari dagokionez, eragindako auzokideei kalteak saiheste aldera.

- b) Gainera, azpimarratu zenez, neurri berri hori hartzeko gertatutako beste baldintza batzuk edo lokalaren etetea eskatu zen unean egiaztatu ezin izan zirenak aztertu ziren.

Ez dakigu zein gertakari edo baldintzaz ari den oraingoan. Izan ere, ez da inolako daturik eskaini horren inguruan; hala ere, badirudi neurri berri horiek hartzeko jardueraren titularrak aurkeztutako alegazioetan bakarrik oinarritzen zirela, bere aldeko inolako frogarik aurkeztu ez bazuen ere.

- c) Azkenik, neurri horien proportzionaltasunaren irizpidea baloratu behar dela azaltzen da, hau da, horiek hartzeko dakarren irismena eta eragina. Zehazki, honakoa aipatzen du: *“se estará al criterio de la proporcionalidad considerando equilibradamente los perjuicios que las mismas ocasionan al*





inculpado y los objetivos de entre los fijados en el punto 1 que en cada caso concurren, debiéndose optar siempre por la medida o medidas que, logrando razonablemente los citados objetivos, menos daño ocasionen al inculpado y más fácil sea la reparación de sus efectos tras su vigencia."

Osterantzean, ez zen inolako aipamenik egin jarduerak 1994. urteaz geroztik instalaziorako lizentzian ezarritako neurri murriztaileak urratzen dituela baieztatzen duten alkatetza dekretuen eta udal txostenen inguruan, ezta urteetan zehar eragindako herritarrek aurkeztutako etengabeko erreklamazioen inguruan ere. Are gehiago, alderantziz gertatzen da, ebazpenean bertan herritar salatazaileek omen duten jarrera oztopatzailea azpimarratzen da, udalak xedatutako neurketa berria egin dadila ekiditeko helburuarekin.

Hala ere, aurretik azaldutako gertakarietatik eta, eskura ditugun datuetatik egiaztatu ahal izan ez dugun akatsa edo aipamen eza egon ezean, ez dirudi auzokideek proba berri hori egiteko eragozpenik jarri zutenik.

Hori dela-eta, azaldutako baldintzak ikusita, Ararteko erakundeak ez ditu egokitzen ezta legearen arabera ezta ere jotzen udal horren oraingo honetan hartutako erabakiak.

17. Auzokideek, gainera, erakunde honi 2012ko urriaren 19an Laecor enpresak egindako azken neurketaren kopia eskaini diote. Bertan 55 dB(A)ko isolamendu akustikoko maila eta 63 dB(A)ko talka-zarata maila lortu ziren.

Ondorioen atalean neurketa burutu zuen enpresak zera aipatu zuen: *Según los cálculos detallados en el presente estudio, asimismo en los cálculos realizados sobre las fuentes de sonido y aforo de la actividad **manteniendo una limitación de 75 dB(A) el nivel de inmisión** esperado en la vivienda superior se calcula en 32,5 dB(A).*

*Conforme se ha establecido la Licencia de Actividad **está sujeta al cumplimiento de las condiciones descritas en el decreto 171/85 del G.V.** cuya premisa es la nos superación de los valores límite establecidos por el citado Decreto para las franjas diurna y nocturna, 40 dB(A) y 30dB(A), respectivamente en nivel continuo equivalente Laeq 60".*

*De los cálculos realizados, correspondientes al nivel sonoro generado por el conjunto de actividad, se denota que **la contribución por ruido de aforo** condiciona de forma determinante el nivel de emisión de la actividad y en consecuencia superación de los valores límites.*

*Siendo el nivel sonoro generado por **el aforo público una fuente de ruido variable e imposible de controlar**, la asignación de un nivel sonoro determinado no es posible toda vez que va vinculado al comportamiento, circunstancia, civismo... del público y en consecuencia la afección variará en ese orden, siempre y **cuando haya un ambiente relajado en la actividad el nivel de transmisión será menor o, por el contrario, aún en condiciones de aforo mínimo puede llegar a superar notablemente los valores límite.***





Además, otro aspecto a destacar es **el elevado nivel de transmisión de ruido de impacto**, obtenido mediante ensayo normalizado con máquina de martillos, si bien el Decreto 171/1985 del G.V. no contempla la característica del ruido transmitido, ya sea por vía aérea (transmisión de voces, música...) o por vía estructural como es el caso del ruido de impacto (movimiento de mesas, sillas, golpes, tareas de limpieza...), se debe considerar el nivel transmitido por vía sólida en el momento de producirse un arrastre y/o golpe, se producen picos que incrementan en nivel sonoro en la vivienda exponencialmente, si bien esto se produce de forma puntual, son un foco de molestia importante.

Lortutako ondorioak ikusita, enpresak berak honako neurri zuzentzaileak hartzea gomendatzen du;

- a) *Retirar los aparatos de música, la instalación que podrá disponer comprenderá únicamente radio, TV o hilo musical (sonido ambiental) anclado a 75 dB(A), mediante un limitador frecuencial con registro sonográfico.*
- b) *Plantear como **medida cautelar**, el desarrollo de la actividad en horario diurno, de 8:00 a 22:00 horas, en tanto no se realicen mejoras en las condiciones de aislamiento acústico, que garanticen la no superación de los valores límite en la franja horaria nocturna.*
- c) *Colocación de materiales aislantes y/o amortiguantes en todo el mobiliario y en aquellos elementos susceptibles de generar ruidos de impacto, para garantizar la eficacia de la solución, está deberá de estar sujeta a un mantenimiento constante.*
- d) *La ordenación de las tareas de limpieza, almacén, cargas de cámaras etc. se establecerán en horario exclusivamente diurno.*
- e) *Subsanar los cerramientos de ventanas deteriorados, así como eliminar los cierres accesibles al público para evitar que durante el desarrollo de la actividad sean utilizados, así como la puerta de acceso principal se deberá reparar, ya que durante el proceso de medición se pudo constatar que la puerta no cerraba adecuadamente, presentando holguras que impedían su cierre.*

20. Hala eta guztiz ere, herritarren bermatu dutenez, azken proba hori egiteaz arduratu den enpresak emandako ondorioak kontuan hartuta, Legorretako Udalak lokalean aktiboan dauden soinu elementu guztiak 75 dB(A)ra mugatzea eskatu du eta itxiera ordutegia 22.00etan izatea, izan ere, neurri horiek hartuta, eguneko ordutegirako onartutako maximoak betetzen dituela uste du eta, ondorioz, jarduera 1994an emandako lizentzian eskatutako baldintzetara egokitzen da.

21. Azkenik, azpimarratu behar dugu, bi neurketen artean egondako ezberdintasunak ikusita, Legorretako Udalak, dirudienez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren laguntza eskatu zuela burututako proben balorazio tekniko-juridikoa egin zezan eta egun arte hartutako neurriak indarreko legeria betetzeko nahikoak ziren zehaztu zezan.

Txosten hori udalari bidali zitzaion pasa den azaroaren 21ean eta erakunde honi 2012ko abenduaren 14an. Bertan, alde batetik, Laecor enpresak 2011ko urriaren 19an burututako proba (foru txosten beraren arabera 1. txostena





deitzen da) eta, bestetik, 2012ko otsailaren 25ean Xerico enpresak egindako neurketa (aurrerantzean 2. txostena) aztertzen dira. Ondoren, jarduera horrekin loturiko alderdi juridiko nabarmenenak zehazten ditu eta, azkenik, horren inguruan lortutako ondorioak.

a) **1. txostenaren azterketa eta interpretazioari** dagokionez: *AIREKO ZARATAREKIKO ISOLAMENDUAREN emaitzei dagokionez, 55 dB(A) mailako isolamendua ez da nahikoa ganean duen etxebizitzarenganako inmisioa bermatzeko. Hiru foru aldundiek jarduera sailkatuetarako lizentziak izapidetzen izan duten urtetako esperientziaren ondoren, 60 dB(A)-ko gutxieneko eskakizuna ezarri zuten jarduera mota honentzat.*

Eskakizun hori ezartzearen arrazoia honakoa da: INMISIOA balio aldagarria da eta hondoko hotsari eta emisioari lotuta dago; bi balio horiek aldagarriak dira baita ere eta isolamendu akustikoa, berriz, finkoa da. Emisioa kontrolatzea ez da erraza, eta nahiz eta 171/1985 Dekretuak emisiorako gehieneko balioak ezarri eta musika aparatuetarako mugagailuak jarri (kasu honetan ez, jarduerak ez baitu legeztatuta musika aparatuen erabilera), etxebizitzara iristen den zarata mailak gehieneko balioak ez gainditzea bermatzeko ezinbestekoa da gutxieneko isolamendu bat egotea, 60 dB(A) mailakoa hain zuzen ere.

Inmisio balioaren aldagarritasuna dela-eta, LAECOR SL enpresak balio horren inguruan egiten duen neurketa teorikoak ez du erakusten jarduerak 171/1085 Dekretuan xedatutakoa betetzen duenik. Izan ere, kalkulu teorikoa denez, ezin da bermatu beteko denik. Hau da: nork erregulatzen du aforoa eta erabiltzaile bakoitzak igortzen duen zarata maila? Beraz, zerbitzu tekniko honek uste du neurketa teorikoak ez duela balio interpretatzeko jarduerak betetzen dituela eguneko ordutegirako ezarritako mugak, LAECOR SL enpresaren txostenetik ondorioztatzen den bezala.

Enpresa horrek berak, 2. txostenean, argi eta garbi azaltzen du nolakoa izan behar duen, araudiaren arabera, in situ egindako inmisio neurketa batek. Eta beraiek egiten duten neurketa ez dator bat aipatutakoarekin.

b) **2. txostenaren azterketa eta interpretazioari** dagokionez: *LAECOR SL enpresak XEIKO enpresaren neurketa txostenaren inguruan egiten dituen oharrek baliozkoak izango lirateke, azterlan akustiko oso baten barruan dagoen eta in situ egin den neurketa batez ariko bagina.*

Hala ere, XEIKO enpresaren txostena akustikan espezializatutako ingeniari industrial kolegiatu batek sinatzen du eta hori nahikoa da salatzaileen etxebizitzako inmisio datua ezagutu ahal izateko, ulertzen baita inplizituki daudela ziurtatuta, enpresaren kualifikazioan, neurgailuaren kalibrazioaren inguruko bermeak, eta baita neurgailua bera ere, neurketa egin duen pertsonaren erantzukizunpean.

Neurketak errepikatu ez izanak ez du esan nahi inmisio balio hori baliozkoa ez denik; izan ere, neurketa horrek erakusten duena da une horretan gainditu egiten zirela 171/1985 Dekretuak ezarritako inmisio balioak.





Azaldutako guztiagatik, eta ikuspegi teknikoa kontuan hartuta, ondorioztatzen dugu jarduerak ez duela 2. taldeko taberna gisa jarduteko nahikoa isolamendu, eta ezin dela eguneko ordutegian zabalik egon.

- c) **Maila juridikoko gogoeten inguruan** zera aipatzen du: *Egiaztatu da gainditu egiten direla gehieneko balioak, bai 1985eko ekainaren 29ko 171/1985 Dekretuan ezarritakoak, bai Jarduera Lizentziaren 4. neurri zuzentzailean ezarritakoak ere. Hortaz, neurketa horietatik eratortzen diren ondorio juridikoen inguruko hausnarketa egin behar da, erabakitzeke zein diren gauzatu beharreko jarduketa administratiboak, ikusita lokalaren isolamendua ez dela nahikoa.*

1. txostenak gomendatzen du **“neurri zuzentzaile” batzuk ezartzea, baina, gure ustez, neurri horiek ez datoz bat antzeman den gabeziaren larritasun-mailarekin.** 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, EAeko Ingurumena Babestekoak, zera dio 59 bis artikuluan 2. atalean: *“Lizentziak inongo indarririk gabe geratuko dira baldin eta ezinbestean betetzekoak zituzten baldintzak ez badituzte betetzen”.* Era berean, artikulua horren 3. atalak dio: *“Lizentziak ofizioz alda daitezke sektoreko araudia aldatu eta berria indarrean jartzen bada edo ikusten bada jarduerari ezarri zaizkion neurri zuzentzaileak ez direla nahikoa ingurumenari, pertsoneri edo haien ondasunei eragin diezaieketen kaltearen aldean. Baimena aldatzeak ez du eragingo kalte-ordainak jasotzeko inongo eskubiderik.”*

Horri dagokionez, txostenaren a) gomendia, **musika aparatuak kentzeari buruzkoa,** bat dator 1996an ezarritako 5. neurri zuzentzailearekin eta, hortaz, **eskakizun hura gogora ekarri besterik ez du egiten.** Bestalde, altzari guztietan eta inpaktu zaratak sor ditzaketen elementuetan material isolatzaileak edota amortiguatzaileak ezartzea, garbiketa eta biltegiatze lanak antolatzea eta hondatuta dauden leiho itxiturak konpontzea neurri positibotzat har ditzakegu, baina **ez dira, inolaz ere ez, proportzionatuak, eta ez diote erantzunik ematen txostenaren ondorioari,** hau da, tabernaren isolamendu akustikoak ez duela betetzen exijitutako maila, are gutxiago zaratarekin lotutako eragozpenen ondoriozko salaketa espediente bat dagoenean.

b) gomendioan, berriz, kautelazko neurri gisa planteatzen da jarduera eguneko ordutegian garatzea, isolamendu akustikoa gaueko ordutegirako ezarritako gehieneko mailak gainditzen ez direla bermatzeko moduan hobetu bitartean. Gomendio horretatik ondorioztatu daiteke, a contrario sensu, **egungo isolamenduak bermatzen duela ez direla gainditzen eguneko ordutegirako ezarritako gehieneko balioak.** Baina zerbitzu tekniko hau ez dator bat ondorio horrekin. Txostenean bertan adierazten da aforo zaratak modu erabakigarrian baldintzatzen duela jardueraren emisio maila eta, ondorioz, gehieneko balioak gainditzea. Alderdi hori aldagarria eta kontrolaezina denez, ezinezkoa da, beraz, ondorioztatzea egungo isolamenduak eguneko ordutegirako ezarritako gehieneko mailak errespetatzea **bermatzen duenik.** Eta hori ez dela horrela frogatzen du espedientearen dagoen inmisio neurketa erreal bakarrak, hau da, XEIKO enpresak otsailaren 25ean egindakoak, bertan erakusten baita eguneko gehieneko mailak gainditzen direla.

Azaldutako guztiagatik, zerbitzu tekniko honen iritziz errekerimendua egin behar zaio berehala jardueraren titularrari, jarduera bertan behera utzi dezan, higieztina exijitutako mailen arabera isolatzeko obrak egin arte. Gogorarazi behar dugu lizentzian bertan jasotako baldintzek ezartzen zutela jada jarduera hasteko





ezinbesteko baldintza gisa **lokal osoaren** isolamendua, eta bere garaian aurkeztutako proiektuaren arabera lokalaren sabaia isolatzeko obrak besterik ez zirela egin.

Beste aukera bat da, lehen aipatu den 59 bis artikulua 3. atalean aurreikusitakoaren arabera, aldatzea jarduera lizentzia, eta TABERNA jarduerarako lizentzia izatetik DASTALEKU jarduerarako lizentzia izatera igarotzea. Izan ere, lokalak badu jarduera horretarako beharrezkoa den isolamendua. Hala ere, jarduera lizentzia horrekin ezin da edari alkoholdunik saldu eta egunez bakarrik gara daiteke (1. taldea, ordutegiei buruzko Eusko Jaurlaritzaren Dekretua).

d) Lortutako emaitzak kontuan hartuta ondorengo ondorioztatzen da:

- Higiezin baten isolamenduari buruzko azterlan oso bat egiteko ezinbestekoa da aireko zaratarekiko isolamendua neurtzea eta lokalaren gainean egonik eragin zuzena jasaten duten etxebizitzetako zarata inmisioa neurtzea. Kasu honetan, Legorretako (...) tabernaren aireko zaratarekiko isolamendua 55 dB(A)-koa izan da.
- 1. txostenak ez du inmisio neurketarik jasotzen eta, horren ordez, aforo teoriko baten arabera kalkulua egiten du, lokalaren azalera osoa kontuan hartuta. Hala ere, neurketa hori ez da erreal. Bestalde, XEIKO enpresak inmisio akustikoa neurtu zuen 2012ko otsailaren 25ean. Gure ustez, neurketa hori zuzena da –alderdi formalak alde batera utzita- eta bertan ikusi daiteke egoera jakin batzuetan gairiditu egiten direla eguneko ordutegirako ezarritako gehieneko balioak.
- Bi neurketak batera aztertuta, ondorioztatu daiteke, zalantzarik gabe, establezimenduaren isolamendu akustikoa ez dela nahikoa, eta isolamendu horrekin ezin dela TABERNA jarduera garatu, EAEn jarduera horretarako eskatzen den isolamendu akustikoa 60 dB(A) baita.
- 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, EAeko ingurumena babestekoak, ezartzen du jarduerak bete beharreko baldintzak ez betetzearen ondorio juridikoa dela **lizentziak indarririk gabe uztea**. Bestalde, **lizentzia ofizioz aldatzeko** aukera ere ematen du, lehen aipatu den bezala.
- Beraz, jarduera berehala eten beharko litzake, eta titularrari errekerimendua egin, hosgabete akustikoa egiteko proiektua aurkeztu dezan, aipatu eskakizunen arabera.

Hala eta guztiz ere, ez dirudi udaletik neurri berririk hartu zutenik jardueraren funtzionamendua birbideratzeko indarreko legerian xedatutakoari jarraiki.

Gogoetak

1. Eskura ditugun datuen arabera, aipatzekoa da gure esku-hartzearen helburuak Legorretako Udalak hirugarrenei behin eta berriro eragindako kalteak saihesteko ezarritako neurri zuzentzaileak urratzeagatik ostalaritza establezimenduaren funtzionamendutik sortutako kaltearen aurrean jarduniki bideratu ez izanari erreferentzia egiten diola.





Ingurumenaren babesaren xedea ez da amaitzen eragindako kalteen konponketarekin, elementu eratzailen mantentze lanak ere egin behar direlako. Hori dela eta, argi utzi behar dugu, jarduera sailkatuak kontrolatze eta ingurumen alorreko legedira egokitze aldera herri-administrazioek esku hartzeko duten betebeharra ez dela aukerazkoa, izan ere, interes orokorra defendatzeko eta legeditik eratortzen diren betebeharrak betetzen direla bermatzeko ordenamendu juridikoak ematen dizkion ahalmen publikoak gauzatzean datza.

2. Jarduera-lizentziek lotura iraunkorra sortzen dute eta horren helburua interes publikoa babestea da, baimendutako jarduera garatzeak eragin litzakeen gertakarien aurrean.

Zentzu horretan, argi geratu behar da jarduera beti interes publikoko eskakizunetara egokitzeko baldintza inplizituaren mendekotzat jo behar dela.

Eskakizun horiek ahalmena ematen diote administrazioari, proportzionaltasun egokiarekin, baimendutako jardueran esku hartzeko, eta jarduleei, are ofizioz, beharrezkoak diren zuzenketa- eta egokitzapen-neurriak ezartzeko, jarduerak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko edo, azken beltzean, emandako baimena ezeztatzeko, interes publikoko eskakizunetara egokitzeko aukera guztiak ahitu direnean; izan ere, bestela, zaintza, segurtasun, bizikidetzeta eta ordena publikoaren arloko betebeharrak nagusiei dagokienez utzieraz jardutea litzateke.

3. Kexak hizpide duen arazo nagusiari dagokionez, hau da, establezimenduaren funtzionamendu irregularrak eragindako kalte larriei dagokienez, erakunde honek behin baino gehiagotan adierazi du halako jarduera motatik sortzen diren kalteak konpontuzat joko direla lokalaren isolamendu akustikoa arau bidez ezarritako baldintzen arabera dela bermatuz gero eta soinu iturriak, kalifikazio txostenean baimendu ondoren, behar bezala ainguratuta eta zigilatuta daudela egiaztatuz gero.

Zentzu horretan, zehaztu beharra dago, azaldutako aurrekarietan behar bezala bermatuta geratu den moduan, musika ekipoa ez da zarata kalteak sor ditzakeen gauza bakarra, izan ere, jarduera horietan ohikoak diren beste soinu iturri batzuek ere, kasu honetan gertatzen den moduan, kalte larriak eragin ditzakete; hala nola, bezeroen arteko elkarrizketak, materiala arrastaka eramatea edota lokal horietan ezartzen diren makinak.

4. Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, egoitzarako hiri lurretan ezarritako jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatu beharreko izaera orokorreko arau teknikoak onartzen dituenak, establezimendu horiek bete behar duten baldintza tekniko gisa **aireko zarataren isolamendu akustikoaren gutxieneko maila** eskatzen du, lokalean sortzen den soinu presioak airetik zein egituraren bitartez arau bidez ezarritako soinu parametroak, hau da, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85





Dekretuan xedatutakoak gainditu ez ditzan, *“Nolanahi ere, eta berarizko udal-araupidetzaaren kaltetan gabe, etzanguetan, sukaldeetan eta egonguetan ez dira gaueko 10ak arte 40 db(A) eta goizeko zortziak arte 30db(A) gaindituko, hots-maila bereango minutu osoan Lek. baliokidetan neurketa, ez eta gehieneko unetan, hurrenez-hurren, goizeko 8etatik eta gaueko 10etatik hasita, 45 eta 55 dB(A) ere.”* kalifikazio txostenak berak jasotzen duen moduan.

Zentzu horretan, Aginduak berak I. kapituluko 3.2.4. atalean zera xedatzen du: *“Musika-apailuz irratia, telebista-apiluak eta musika-haria izan ditzaten ekintzapidetan, kalkuloak tegiaren ezein tokitan 75 dB(A) daudela eginda izango dituen zaratagabetze-egitasmo bat aurkeztu beharrezkoa izango da, tegian ate bikoitza ez jarri behar izateko lurlean lotzea hotsari dagokionean maila horretantxe eginez”*

Atal horreketan berariaz adierazten da aipaturiko musika-aparatuez bestelakoak dituzten jarduerak, intsonorizazio proiekturako kalkuluak egiterakoan, lokal barruan gutxienez 90 dB(A)-ko isolamendua erabiliko dutela.

Bi kasuotan, araudi horrek zera agintzen du: *“Zaratagabetze-egitasmoan tegiaren barruan sortutako zarataren maila, horma-hezurren, homen eta horelakoan hots-iresmena, gai jabalgarrien hots-iresmena, guztizko hots-zurrupamena eta jabalpen-neurria zehaztuko dira, dagozkien kalkuloekin.”*

Ondorioz, arestian ezarritakoa betetze aldera eta, aipatutako foru txostenak azaltzen duenari jarraiki, adierazi beharrezkoa da, orokorrean, foru aldundiek eskatzen ohi dutela inguruneke zarata akustikoaren isolamendua duten lokalek, gutxienez, 60 dB(A) bete beharko dutela telebista, irratia edo haria izan eta musika-ekiporik edo bozgorailu askerik ez dutenek; hau da, barruan gehienez sortzen den zaratak 75 dB(A)-koa izan behar du.

Soinua egiteko beste gailuren bat erabiltzen bada, lehen aipatutakoetatik ezberdina, isolamendua zabaldu egiten da, gutxienez, 65 dB(A) mailaraino.

Hala eta guztiz ere, azken neurketan behar bezala bermatuta geratu den moduan, (...) tabernak 55 dB(A)ko aireko zarataren isolamendu akustikoaren maila besterik ez du, hau da, musika gailurik gabe funtzionatzeko baimena emateko nahikoa ere ez dena.

5. Ondorioz, dekretuak berak, zioen azalpenean, foru erakundek beharrezkoak diren babeserako neurri zuzentzaile osagarriak aipatzeko eskumena dutela zehazten duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak azaroaren 21eko txostenean bi aukera eskaintzen ditu jardueran antzemandako irregulartasunak konpontzeko.
 - a) Alde batetik, kasu honetan konponbiderik aproposena **isolamendu akustikoaren maila indartzea da** jardueraren funtzionamendu zuzena bermatzeko eta, lortutako isolamendu mailaren arabera, irratia, telebista eta hari musikala ez diren bestelako soinu ekipoak baimendu ahal izateko.
 - b) Bestalde, establezimendu horren isolamendu akustikoaren maila ez hobetzekotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 59.3. artikuluan





xedatutakoaren babesean (bertan xedatzen da lizentziak ofizioz aldatu ahalko direla ingurumenean eragin daitekeen kalteari dagokionez ezarritako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla bermatzen denean), **taberna jardueraren kalifikazioa dastalekura murriztera** proposatzen du, une honetan garatzen den jarduera motarako isolamendu nahikorik ez duelako.

Horrela balitz, ezingo du edari alkoholikorik saldu eta jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua bigarrenez aldatzen duen martxoaren 13ko 36/2012 Dekretuaren I. talderako ezarritako ordutegiak bete beharko ditu.

6. Horri guztiari lotuta, argitu beharra dago, inolaz ere ezin dugula onartu neurri zuzentzaile osagarri gisa lokaleko soinu ekipoetan 75 dB(A)ko soinu mugatzailea ezartzea, horiek egunez bakarrik erabiltzen diren arren. Izan ere, nahitaez bete beharreko jardueraren kalifikazio txostenak azaltzen duen moduan, berriaz debekatzen da edonolako musika aparatu erabiltzea, irratia, telebista eta hari musikala izan ezik, baita lokaleko sukaldea erabiltzea ere.

Halako jarduera motek ezin dute inolaz ere kalifikatu zen memorian agertzen ez den elementu edo ekipo gehiagorik jarri edo, hala badagokio, instalazioa legezkatzen den arte; hau da, lokalari jarduera zabaltzeko lizentzia ematen zaion arte –lizentzia horrek berriaz baimenduko du musika aparatuaren erabilera– eta lokalari jarritako neurri zuzentzaile berriak eraginkorrak direla egiaztatzen den arte.

7. Gainera, potentzia-mugatzaileak musika-ekipoetan ezartzea nahitaez bete beharreko neurri zuzentzaile gisa hartzen da, jarduera gogaikarriei, kaltegarriei eta arriskutsuei aplikatu beharreko izaera orokorreko arau teknikoak onetsi zituen 1985. urteko ekainaren 11ko 171/1085 Dekretuan zehazturikoaren arabera.

Askotan egiaztatu den moduan, jardueren titularrek erraz manipula ditzakete potentzia-mugatzaileak, baita behar bezala ainguratuta eta zigilatuta zeudenak ordezkatu ere. Hori dela-eta, lokal horien alboetako etxebizitzetan lortutako igorpen balioak eraginkortasunez egiaztatze aldera, ezinbestekoa da auzokideen salaketa jaso ondoren, behar bezalako neurketak eta egiaztapenak egitea, ahal izanez gero jarduera errendimendu osoan dagoenean, bereziki horiek gauzez gertatzen direnean.

Hala egin ezean, jardueraren titularrei ezin izango zaie eskatu beharrezko neurri zuzentzaileak har ditzatela jardueraren funtzionamenduak hori instalatu eta baimendu ahal izateko bete behar izan ziren soinu igorpen mailak gaindi ez ditzan.





8. Irekita dauden ate eta leihoei dagokienez ere, dekretu horrek azaltzen duenez, establezimendu mota horien leihoetatik eta ateetatik soinu igorpena zuzenean kanpora gerta ez dadin, horiek etengabe itxita egon beharko dira eta ostalaritza lokaleko erabiltzaileek ezingo lituzkete horiek ireki. Era berean, establezimendu horiek lokaleko sukaldea legalizatuz gero bete behar dituzten baldintzak jasotzen ditu eta, zehazki, halakoetan izan behar diren aireztapen sistemak. Hori guztia hirugarrenei kalteak ekiditearren.
9. Honaino azaldutakoa ikusita, eta oraindik ere behin betiko ebatzi ez den hasitako zigortzeko espedientearen kaltetan izan gabe, erakunde honek ondorioztatzen du udal horrek eskainitako argudioak ez direla nahikoak udal erakunde horrek aipatutako jardueraren inguruan bideratu behar duen ekintza eta jarraipena justifikatzeko, izan ere, Legorretako Udalak ezin du inolaz ere onartu jarduera hori irekita jarraitzea alde aurretik eman zitzaion lizentzian ezarritako baldintzetara zorrozki egokitzen ez bada edo, hala badagokio, lizentzia berri bat ematen ez bazaio. Horren bidez, instalatutako elementu berriak eta lokal horren funtzionamendu egokia bermatzeko eskatutako neurri zuzentzaile osagarriak egokiak direla bermatuko da.
10. Bistakoa da era honetako establezimenduek, beren jarduera ez badago teknikoki eta juridikoki behar bezala araututa, gatazka larria eragin dezaketela (eta eragin ere, eragiten dutela) beren titularrek duten interes partikularren eta interes publiko orokorraren artean. Titularrek jardueraren barruan beren negozioa aurrera eraman nahi dute; establezimendu horietatik gertu bizi diren auzotarrek, aldiz, intimitaterako eta segurtasunerako beren eskubideak bermatu nahi dituzte, ezin onar baitaiteke lokaletako eragozpenek hauen lasaitasuna asaldatzea.
11. Gomendio honen aurrekarietan aipatutako moduko egoerak saiheste aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, 64. artikuluan alkateari eskumena ematen dio, prebentzioz, eraikitze edo ustiatze fasean dagoen edozein jarduera guztiz edo zati batean eteteko proiektua burutzeko ezarritako ingurumen baldintzak urratu edo hausteagatik ingurumenean kalte larriak eta itzulezinak gertatzeko edo pertsonen zein ondasunen berehalako arriskua eragiteko arrazoizko beldurra dagoenean, egoera sortu duten baldintzak desagertzen ez diren bitartean, arriskuak baloratzeko edo murrizteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko aukerarekin.
12. Ulertzekoa da, lokaleko isolamendu akustikoko arazoak konpontzen diren bitartean eta, zigortzeko espedienteak hastearen kaltetan izan gabe, beste ezohiko neurri batzuk ere hartzea mugakide diren higiezinetakoz biztanleek eragozpenik ez jasateko. Gainera, badakigu neurri horiek jarduera mota horiek burutzen dituzten pertsoneniko proportzionaltasun tekniko eta ekonomikoko irizpideen arabera hartu behar direla. Hala ere, behin-behineko izaerarekin hartzen diren edo hartu beharko liratekeen erabakiak, hizpide dugun kasuan bezala, iraunkorrak izan daitezke, auzotarrek indarreko legeriak ezartzen





dituen mugez gaindiko soinu igorpen mailak jasan behar izatea saihesteko balio ez izatearen larrigarriarekin.

13. Eskainitako datuen arabera, kasu honetan benetan harrigarria da Legorretako Udalak jardueraren titularrari eskatu ez izana, indarreko antolamendu juridikoaren arabera, garatzen den jardueraren ondorioak pairatzen dituzten pertsonen osasunerako eta kalitatezko ingurumen baterako eskubidea babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzea.

Are gehiago, eskura ditugun datuetatik ondoriozta dezakegu, alde batetik, lokalaren arduradunak lokaleko jarduera indarrean dagoen araudira egokitzeko erresistentzia handia, eta bestetik, Udalaren jarduerarik eza eta pasibotasuna kaltetutako auzokideek behin eta berriz aurkeztutako salaketan aurrean eta jardueran antzemandako irregulartasunen aurrean, eta horrek lizentzien teknikak ezartzen duen prebentzio printzipioa urratzen du argi eta garbi.

14. Tokiko erakundeek ezin diete muzin egin ingurumenari kalte egin diezaioketen egoerei, pertsonengan edo ondasunetan eragina duten kalteak bihurtu arte itxaroten, eta ezin dute espedientea luzatu ere egin, lokaleko arduradunek jarduera legera egokituko dutenaren itxaropenarekin. Ezinbestekoa da udalak arrisku-egoera amaitzeko esku hartzea eta beharrezko neurri zuzentzaileak hartzea, edo bestela arduradunei eurei zuzenean agintzea hori egiteko.
15. Kasu honetan biltzen diren egoerak kontuan hartuta, komeni da gogoraraztea Giza Eskubideen Europako Epaitegiak duela gutxi emandako doktrina. Izan ere, 2011ko urriaren 18ko Epaian, Martínez Martínez Espainiaren aurka kasuan, honela dio:

“El domicilio es normalmente el lugar, el espacio físicamente determinado donde se desarrolla la vida privada y familiar. El individuo tiene derecho al respeto de su domicilio, concebido no sólo como un derecho a un simple espacio físico, sino también para el disfrute, con toda tranquilidad, de dicho espacio. La vulneración del derecho al respeto del domicilio no sólo se refiere a ofensas materiales o corporales, tales como la entrada sin autorización en el domicilio de una persona, sino también las lesiones incorpóreas como los ruidos, las emisiones, los olores y otras injerencias.”

Jarraian, zera gogorarazten du: *“La actuación de la Administración no sólo no debe limitarse a abstenerse de llevar a cabo tales injerencias, sino que tiene encomendado proteger al individuo frente a las ya mencionadas.”*

Zentzu berean, Auzitegi Konstituzionaleko 119/2001 Epaian esan zen moduan: *“Una exposición prolongada a unos determinados niveles de ruido que pueden objetivamente calificarse como evitables, ha de merecer la protección dispensada al derecho fundamental a la intimidad personal y familiar, en el ámbito domiciliario, en la medida en que impidan o dificulten el libre desarrollo de la personalidad, siempre y cuando la lesión o*





menoscabo provenga de actos u omisiones de entes públicos a los que sea imputable la lesión producida."

Beraz, herritarrei eragozpenak edo kalteak sor diezazkieten zaratak saihesteko eta, bidezkoa denean, zuzentzeko antolamendu juridikoak esleitzen dion botere edo egitekoa bete behar du ezinbestean organo publikoak.

Auzitegi Konstituzionalak zera adierazi du behin eta berriro: *"la finalidad de las medidas provisionales o cautelares no sólo es asegurar la eficacia de la sanción que pudiera recaer, sino también evitar el mantenimiento de los efectos de la infracción o, si se prefiere, que persista la situación lesiva denunciada"*.

Hori dela-eta, tokiko erakundeei dagokie prebentzio neurriak hartzea soinu iturriak hirugarrenen interes legitimoetan sortzen dituen kalteak zurrizteko.

16. Orain arte azaldutakoa ikusita, ezin da gehiago baimendu eta onartu jarduera horren inguruetan bizi diren familiek horrelako egoera deserosoak pairatu behar izatea.

Badakigu instalazioak zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunak betetzeak zailtasunak dakartzala eta, horren ildotik, uste dugu oreka aurkitu behar dela merkataritza jarduera edo zerbitzu jarduera arrakastatsuen eta auzotarrek dituzten eskubideen artean, eskubide horiek atsedenerako eskubidea eta kalitatezko eta soinu nahasmendurik gabeko inguruneaz gozatzeko eskubidea izanik.

Edonola ere, Legorretako Udalari berriro gogorarazi nahi diogu beharrezkoa dela baliabideak eta prozedurak arbitratzea era honetako establezimenduen ondoan bizi diren pertsonen eskubideak –intimitaterako, segurtasunerako eta bortxaezintasunerako eskubideak– gauzatzen direla bermatzeko, ezin onar baitaiteke lokalek eragindako eragozpenen ondorioz haien lasaitasuna asaldatzea.

17. Azkenik, aintzat izan behar dugu sailkatutako jardueren kontrolean eskumena duten administrazioen jardute ezak, besteak beste, administrazio mailako edo baita zigor mailako erantzukizunak ere eragin ditzakeela.





Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarri duenarekin bat etorriz,

3/2013 GOMENDIOA, urtarrilaren 17koa, Legorretako Udalari egina

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 64. artikulua babesean eta, ordura arte burututako jarduera okerraren ondorioz sortutako zigorren kaltetan izan gabe, ostalaritza establezimendu hori prebentzioz geldiarazi dadila, beharrezkoak diren ingurumen baldintzak betetzen dituen arte, inguruko auzokideek pairatzen dituzten zarata eta bibrazio kalteak albait lasterren saiheste aldera.

Ostalaritza establezimenduko jabeari antzemandako irregulartasunak zuzendu ditzala eta indarreko legeriak ezartzen dituen beharrezko neurri zuzentzaileak behin betiko bete ditzala eskatzea.

